

M-22
Udal eta foru
hauteskundeak

Badira lau hankak, orain mahaia falta da

Abertzaleen eremuan EAJ eta ezker abertzalea, espainolismoaren esparruan PSE-PSN eta PP-UPN. ETaren ondorengoan lau indar nagusi hauen espazio politikoa egonkortuko zela esan da sarri. Bariantekin, baina hasi da gauzatzen.

XABIER LETONA



ARGAZKILARIA

Beste behin ere EAJ gailendu da hauteskundeetan, baina protagonismo nagusia Bildurena izan da.

BILDUREN hauteskundeak izan dira hauek, edozeren gainetik eta Euskal Herriko egoera politikoari dagokionez, biondorio nagusi nabarmendu daitezke, biak normalizazio politikoari lotuak, bata bakearen eremukoa, bestea jarduera politiko-instituzionalari lotua. Munduko beste bake prozesutan gertatu den

bezala, gatazka bortitzaren erdigunean izan eta hortik ateratzeko ahalegina egiten duen indar politikoak hautesleriaren saria jasotzen du. Irlandan Sinn Féinek jaso zuen sari hori eta hemen ezker abertzaleak Bilduren emaitzekin. Emaitza hauek borroka armatua albo-ratzea erabaki zuen ezker abertzalearen bidea



ARGAZKILARIA

PSE-PP gobernuak egoera berriari nola eutsiko dion ikusi beharko da orain.

modu atzeraezinean bultzatzen dute, eta bake prozesu serio bat abiarazteko oinarri sendoak jartzen dituzte.

Estatuaren erabaki irmoa bakarrik falta da orain. Batetik, eta Bildurekin erabakitakoaren lorratzari segituz, Auzitegi Konstituzionalak Sortu legeztatuko du datozen hilabeteetan. Eta bestetik, *Parot doktrina*-ren inguruan izan diren filtrazioetan oinarrituta, badirudi preso-eren eremuan ere izan daitezkeela mugimendu batzuk. Funtsean, erronka nagusia da Euskal Herriko kultura politiko nagusienak bake prozesu serio baten inguruan egituratzea, eta guztien artean hamarkadetako gatazka bortitzari irteera duina ematea, behingoz gatazka politiko normalizatuari atea ireki ahal izateko.

PSOErekin egin ahal izango da hori? Edo PPrekin? Horra zalantza nagusia. Dilemaren giltza PSOEn eta Espainiako 2012ko hauteskunde orokorretan izango da. PSOEn-entzat oso gaitza izango da hauteskunde

horiek irabaztea, baina badirudi euskal gatazka garrantzitsua izan daitekeela bereztat. Giltzarria egoera ekonomikoa izango da, baina hor ez dirudi hain epe laburrean emaitzak hobetuko zaizkionik. Giltzetako bat behintzat, “iparreko arazoa” behingoz konpontzea izan daiteke.

Gaur egunetik begiratuta, ez dirudi PP hemengo bake prozesu bat bultzatzekotan dagoenik. Guztiz kontrakoa. Baina Espainiako Gobernu hartuta, oso ongi pentsatu beharko du zer egin euskal gatazkaz, bere gotorlekuan jarraitzeak epe ertainera soberanismoa indartu besterik ez baitu egingo.

Lau bloke nagusi

Bakearen eremu zehatzaz gain, bistan da hauteskunde hauek normalizazio politiko-instituzionala bultzatuko dutela. Hainbat arrazoiengatik, baina batez ere, ezker abertzalearen ia hamarkada bateko ilegalizazioaren ondoren, hauteskundeok herritarren borondatea islatu dutelako. Orain inoiz baino argiako antzematen da euskal herritarren gehiengo oso handiak historiaren orrialde bat pasatu nahi duela. Horrek bakarrik sekulako indarra du normalizazio politikoa akuilatzeke.

Baina nola demontre hasiko da gauzatzen normalizazio hori? Hauteskundeek argi utzi dute, hainbatetan azpimarratu dena, normalizazio politikoak apurka lau bloke nagusi utziko dituela: abertzaletasunaren eremuan EAJ eta ezker abertzalea, azken hau gaur egun bloke soberanistan integratua eta espazio horren bultzagile nagusi moduan; eta espainolismoarenean PSE-PSN batean eta PP-UPN bestean.

Asko hitz egin izan da ETaren osteko garaiko transbertsalitateaz eta orain ikusiko da hori nola gauzatzen den. Josu Jon Imazen agintaldian, transbertsalitatea izan zen jeltzaileen ikur nagusia, eta Urkulluren aroan diskurtso teoriko gisa apaldu bada ere, praxi



politikoa indarrez gauzatu da, batez ere Ferrazekin lortutako akordioak medio. Ohiko gobernagarritasunean ere, EAJk eta PSEk helduleku bateratu asko dituzte, azpiegituren eremu zabalak erakusten duen legez. Eusko Legebiltzarrean ez ezik, biltzar nagusietako unean uneko akordioetan behin baino gehiagotan islatu da sintonia on hori, aurrekontuekin sarri ikusi den gisan.

Loiolako bake prozesuko garai hartan, halaber, asko hitz egin zen PSE eta Batasunaren arteko sintonia onaz; prozesu hura, finean, bi indarren artean egikaritu zuten eta hura ondo atera izan balitz, epe laburrera indar bien arteko harremanetik atera zitekeenaz ugari idatzi zen. Gaur egun fikzioa dirudi, baina orduan Otegi-Egiguren bikotearen harreman onak ate guztiak zabalik uzten zituen.

Eta, azkenik, akordiorako beste gune nagusia abertzaleen artekoa da. Bilduren emaitzek argi erakusten dute indar metaketak abertzaleen artean duen arrakasta. Joan den asteko ARGIAN Juan Mari Ollora jeltzaleak argi adierazten zuen etorkizunean Bilduk EAJ definitzera bultzatuko zuela. Aurten dira EAJko barne hauteskundeak eta hor ikusiko da orain arteko barne oreka mantentzen den –seguruenik hala izango da– edo Egibarren sektoreak EAJ soberanistagoa bultzatzeko gaitasunik ote duen. Bilduk bere zabalkunde prozesuan asmatzen jarraitzen badu, EAJk bereziki zaindu beharko du bere sektore independentistena.

Garai berrian, halaber, egungo alderdi txikien biziraupena oso aldapa goran jarri da. Alderdi moduan irauteko, Aralarren espazio logikoa Bildu edo espazio soberanista litzatekeela dirudi. Bilduren operaziotik, ezker abertzaleak biltzen jarraitu behar duela ikasi beharko luke, eta metaketa soberanistan parte hartu nahi duten guztien parte hartzea erraztu eta bultzatu beharko lukeela. H11-en norabideaz ere zalantza gutxi dira, sortu zenean ere EAJko norabidea iragartzen zitzaion eta hauteskunde hauek bide hori konfirmatzen dute. Ezker Batuaren espazioa ere gaitza da eta, seguruenik, PSEk ezkerrera uzten dion tarte horretan mugitzen asmatu beharko du.

Nafarroako korapiloa

Nafarroan, ohi bezala, egoerak erabat korapilatua jarraitzen du. Eskuina nabarmen nagusi izan arren, abertzaletasunak gora egin du eta inoizko ordezkartza onena lortu du NaBai eta Bilduren eskutik. PSNk, aldiz, porrot egin



Nafarroa Bai da abertzaleen arteko lehen indarra Nafarroan.

Bilduk bere zabalkunde prozesuan asmatzen jarraitzen badu, EAJk bereziki zaindu beharko du bere sektore independentistena

du berriz ere, eta ondo baino hobeto pentsatu beharko du noiz hartuko duen UPNren itzaletik aldentzeko erabakia. Abertzaleekin Nafarroako Gobernuak lehendakartza esku-

ra zezakeen eta behingoz Nafarroa beste norabide batean jarri. Baina badirudi halako kontuekin oraingoz politika fikzioaz ari garela. Duela lau urte Ferrazetik geldiarazi zen PSNren jauzi ausarta. Orain, aldiz, eta bake prozesua bultzatzearen testuinguruan ez ote litzaioke komeni Ferrazi berari UPNren

kanporatzea gauzatzea? Agian bai, baina aurreko legealdian PSN NaBairekin ituna egiteko gai izan ez bazen, are eta nekezago egingo du orain Bildurekin.

Baina konstituzionalisten jarreraz gain, funtsean, abertzaletasunak berak egin behar du Nafarroari buruzko eztabaida sakona eta hori egiteko posizio onean da. Ertz ugari izan dezake hausnarketa horrek, baina bi nabarmentzen dira besteen gainetik. Batek, Nafarroaren erabaki esparruaz behin betiko erabaki, eta hau funtsean ezker abertzaleak egin behar du (NaBaik berea egina du). Loiolako prozesuko garaian urrats garrantzitsua eman zuen Anaitasunako Adierazpenarekin, baina ez zen bere edukietan sakondu ezta bere sozializazioan. Bestetik, Bixente Serrano Izkok orriotan egindako analisisan azaltzen duen legez, zer egin behar dute abertzaleek, metatu edo zabaldu? Hau da, epe motzean adibidez, indar bakoarean batu behar dira abertzaleak edo abertzaletasun garbitik haragoko indarretara zabaldu behar dute? ■

Nafarroako Parlamentua

UPN tinko eta abertzaleak gora

Nafarroako Legebiltzarreko hauteskunde emaitzek aldaketa garaia iragarri dute dagoeneko. Besterik da, UPN oposizioan utziko lukeen gobernu gaiztatzea. Aldaketak PSNren ausardia behar luke. Gaur gaurkoz, ez dirudi alderdi nafar sozialistaren balizko ausardia garai hori heldu denik.

MIKEL ASURMENDI

UPNk GOBERNATUKO DU BESTE LAU URTEZ. Hego Euskal Herriko udal eta foru hauteskundeetan berrikuntza Bilduren sarrera izan da, iragan hamarkadan ezker abertzale historikoak euskal erakundeetan jasan duen bazterketa zuzentzera datorrena. Nafarroan ez da salbuespenik izan, eta neurri batean ustekabea izan da.

NaBaik berak ere espero ez zituen emaitzak izan ditu Bilduk, ziur aski. Patxi Zabaleak zioenez, abertzaleak bi indarretan bereiz aurkeztuta eserleku gehiago beregana zezaketen, batuta baino. Emaitza ona izan da, noski, baina ez dugu batuta aurkezturik bilduko zukeen babesaz egutu. Dena dela, aurrerantzean beste bide eta modu politikoak landu beharko dituzte abertzaleak. Artean, bi indar abertzaleen 15 biltzarkidek jardungo dute lau urtez, Ezkerrako hirurak izanen dira beren

ondoan. Legebiltzarkide hauetako batzuek elkar ezagutzen dute, iragan legealdian ekimen berean jardun baizuten; NaBain. Zoriturrez, gaur gaurkoz, ez dute nahiko ordezkari biltzen UPN-PPk berriz ere osatuko duen gobernuaren alternatiba osatzeko. 2007ko hauteskundeetan ostean, gobernu aldaketa bideratzeko PSNren babesaz behar zen, baina saioa ezerezean geratu zen eta PSN ahulduta ateratu da boz hauetan. Horrek alderdi sozialistari zer pentsatua eman beharko lioke, eta bere estrategia aztertzea behartu beharko luke. Bistan da, duela urtebete akordioa ezinezko izan bazen, gaur egun ezker abertzale historikoaren presentzia biltzen duen indar abertzaleekin akordioak lortzeak kimera dirudi.

Edonola ere, pentsa dezagun, bai PSNk bai UPN-PPk pentsatzen dutela Nafarroa garai berri batean sartu dela. Eta, halaber, berau gobernatzen segituko duten eskuindar nabarristek bestelako politika bat lantzen hasi beharko dutela.

Garai berria Nafarroan

Legebiltzarreko emaitzek garai berri bat iragarri dute Nafarroan dagoeneko. Maiatzaren 22ko hauteskundeetan euskal abertzaletasunak jauzi handia eman du, beraz, indar abertzaleak izanen dira etorkizuneko aldaketaren eragile eta gidari nagusiak. Artean, begira dezagun aurreko hauteskundeetatik –2007ko maiatzaren 27koak– egungo hauetara eman den bilakaera.

Hasteko eta behin, abstentzioa da kontuan hartu beharreko datu bat. 2007an nafarren %75,3k boza eman zuen, eta aldion %69,7k. Parte-hartzeak bost puntu eta erdi egin du beherera. Eskuinetik begiratzen hasita, UPN izan da alderdi bozkatuena: bozen %34,5 erdietsi du, 19 eserleku. PPk berriz, bozen



Yolanda Barcina, sorpresa handirik izan ezean, Nafarroako presidente berria izanen da.

Nafarroa



BOTO KOPURUA

ALDERDIA	2011	2007
UPN	111.278	139.122
PSN	51.054	74.157
NaBai	49.768	77.893
Bildu	42.839	-
PP	23.449	-
Ezkerra (NEB-Batzarre)*	18.409	14.337
CDN	4.651	14.418
EAE-ANV**	-	17.242

* 2007ko emaitzak NEBri bakarrik dagozkie.

** EAE-ANVren datuei boto baliogabeak gehitu zaizkie.

Abstentzioa	%30,1	%26,2
-------------	-------	-------

BATZAR OROKORREN
OSAKETA

%7,3 lortu du, 4 eserleku. Bien eserlekuak batuta, bat irabazi dute. Alegia, 2007an CDNk zituen bi eserlekuetako bat eskuratu dute nolabait. CDNk bozen %4,4tik %1,4ra jaitsi da; baita alderdi bezala Legebiltzarretik desagertu ere. Nafarroako zentro-eskuinak 152.286 boz jaso zuen, eta oraingoan 139.878. 12.000 boz galera jasan du. Pentsatzekoa da boz horiek abstentziora joan direla.

PSN-PSOE izan da Nafarroako alderdi galtzailea. Bozen %22,4tik %15,8ra jaitsi da: 73.134 boz zituen, eta 51.054 jaso ditu. Hiru eserleku galdu ditu, 12 zituen eta 9 ditu. 12.000 boz galdu ditu honek ere. Bigarren alderdi bozkatuena izan da, halere.

NaBaik bozen %23,70 ukan zituen eta %15,40 ditu orain. 77.646 boz zituen eta 49.768 jaso ditu. Bozen galtzea espero zen –Bilduk jasoko zituelakoan– baina galera uste baino handiagoa izan da. Bestela esanda, Bil-

Pentsa dezagun, bai PSNk bai UPN-PPk pentsatzen dutela Nafarroa garai berri batean sartu dela. Eta, halaber, berau gobernatzen segituko duten eskuindar nabarristek bestelako politika bat lantzen hasi beharko dutela

duk inork espero ez zuena baino aise boz gehiago bildu du: 42.839, %13,3. Indar abertzaleen bozak 92.607 dira. NaBaik (8 eserleku) eta Bilduk (7) inoizko ordezkaritza abertzale handiena osatuko dute Legebiltzarrean. Gogora dezagun bi koalizioetan Aralar eta EAJ (NaBain) eta EA eta ezker abertzale historikoa (Bildun) biltzen direla, bietan eragile independenteak direlarik.

Batzarre 2007ko NaBain zegoen, eta oraingo bozetan NEBekin aurkeztu da Ezkerra koalizioan: %5,7 erdietsi dituzte; 18.409 boz. NEBk bakarka 14.244 boz erdietsi zituen. Batzarre-ren ekarpena 4.000 mila bozera mugatu da.

Edonola ere, indar abertzaleak eta Ezkerrek 111.116 boz bildu dituzte. Nafarroako etorkizunean UPN-PPren gobernuaren alternatiba izan beharko lukeen proiektuaren enborra. ■

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitzaren proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

What do you
think's best?

**Zuretzat Zure iritziz,
zein da hobe?**

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzu profesionala

INGESEA | EUSKARA | GAZTELANIA | FRANTSESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com

EAEko Batzar Nagusiak

Akordio konplexuen menpe

Bildu Gipuzkoan, EAJ Bizkaian, PP Araban. Horra EAEko Batzar Nagusietan garaile irten diren alderdiak. PSEk boto galera handia jasan du eta txikiak (Aralar, EB, H1!, UPD) desagertu edo ia desagertu egin dira diputazioetatik. Garaipenak, ordea, ez dira erabatekoak, itunak beharrezkoak izango dira hiru lurraldeetan, eta jokoan dauden interes desberdinak kontuan harturik, ez dirudi batere erraza izango denik.

MIKEL GARCIA

MARTIN GARITANO Gipuzkoako Bilduko hautagaiak hordagoa bota zion kanpainen EAJko Markel Olanori. PP-PSEren arteko balizko itunaren mamua izanik EAJk kanpaina honetan etengabe errepikatu duen mezua, Garitanok zuzen luzatu zion galdera telebistako mahai-inguru batean: Bildu alderdi bozkatuena bada, babesa emango al diozue? Egingo al duzue abertzaleen arteko akordioaren alde? Ezker abertzaleak garbi adierazi baitu prest dagoela EAJrekin ituntara iristeko, abertzaleen arteko paktuaren mesedetan. Olanok airean utzi zuen erantzuna, Garitanori umiltasun gehiago eskatuz. Azken finean, Gipuzkoan asko daukate alderdiek jokoan. Pasaiaiko Kanpo Portua, errauste planta eta AHT bezalako proiektu estrategikoak aintzat hartuta, Bildu urrun dago EAJ, PSE edota PPren garapen, ekonomia eta fiskalitate eredutik. PSEk berak amua bota nahi izan dio eskuinari kanpainen, Bildu arbuia-tuz, Miguel Bueni entzun baikenion “Gipuzkoaren garapenari kontra egingo ez diotene-kin” egingo duela ituna. Edo, argiago: “Ezkerrera begiratzea gustatuko litzaidake,

EAJk zehaztu beharko du azpiegitura eta fiskalitate gaietan kide duen PSEren alde egingo duen, ala Bilduk proposatutako abertzaleen arteko akordioari helduko dion



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Martin Garitano (Bildu, Gipuzkoa) Donostiako Atano frontoian emaitza onak ospatzen.

baina badirudi oraintxe bertan hori ezinezkoa izango dela”. PSE eta EAJren arteko balizko itunak Bilduk baino 2 eserleku gehiago —eta Bildu-Aralarren balizko akordioak baino eserleku 1 gehiago— izango lituzke Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Bildu-EAJ-Aralar beste aukera bat izango litzateke, baina prest al dago EAJ Bildurekin batzeko eta abiatu dituen azpiegiturak kolokan jartzeko? Gutxiengoan ere gobernatu lezake Bilduk, unean uneko hitzarmen zehatzak adostuz, edota, zaila dirudien arren, EAJ-PSE-Aralar koalizioak desiratutako 26 eserlekuak lortuko lituzke Aldundian.

Esanguratsua da, bestalde, talde txikien porrota. Aralar-EB koalizioak 6 eserleku lortu zituen 2007an, eta oraingoan EBk ez du ordezkapenik izan eta Aralarrek bakarra baino ez —biak gehituta, duela lau urte baino 10.000 boto gutxiago jaso dituzte—. EAK 7 diputatu eskuratu zituen duela lau urte, 7 horiek H1! alderdira aldatu dira Gipuzkoan, baina H1!-ekoek ez dute eserleku bakar bat ere atera. Zer pentsa emango die, edo eman beharko lieke.

Araba

BOTO KOPURUA



ALDERDIA	2011	2007
PP	39.631	39.761
EAJ-Hamaikabat*	36.196	39.010
Bildu	31.998	-
PSE-EE	24.879	39.596
EB-Berdeak**	6.258	10.207
Aralar**	4.168	10.207
EA	-	8.709
EAE-ANV***	-	13.113

* EAJ bakarrik aurkeztu zen 2007an.

** Aralar eta EB koalizioan aurkeztu ziren 2007an.

*** EAE-ANVren datuei boto baliogabeak gehitu zaizkio.

Abstentzioa	%36,4	%36,2
-------------	-------	-------

BATZAR OROKORREN
OSAKETA

Bizkaia



BOTO KOPURUA

ALDERDIA	2011	2007
EAJ	216.273	209.503
Bildu	122.056	-
PSE-EE	96.980	129.574
PP	80.203	85.520
EB-Berdeak*	20.467	41.233
Aralar*	15.829	41.233
EA	-	27.132
EAE-ANV**	-	71.788

* Aralar eta EB koalizioan aurkeztu ziren 2007an.

** EAE-ANVren datuei boto baliogabeak gehitu zaizkio.

Abstentzioa	%36	%39,6
-------------	-----	-------

BATZAR OROKORREN
OSAKETA

Gipuzkoa



BOTO KOPURUA

ALDERDIA	2011	2007
Bildu	119.084	-
EAJ	80.838	71.795
PSE-EE	58.947	76.868
PP	34.210	35.017
Aralar*	17.223	36.789
EB-Berdeak*	9.012	36.789
Hamaikabat	8.667	-
EA	-	34.149
EAE-ANV**	-	72.880

* Aralar eta EB koalizioan aurkeztu ziren 2007an.

** EAE-ANVren datuei boto baliogabeak gehitu zaizkio.

Abstentzioa	%37,3	%40,1
-------------	-------	-------

BATZAR OROKORREN
OSAKETA

Bizkaian ere norantz lerratu erabaki beharko du EAJk

Kanpainan DJ gisa ikusi genuen Jose Luis Bilbao nagusitasuna mantendu du Bizkaian. Hala ere, duela zortzi urteko gehiengo absolututik urrun dago EAJ eta duela lau urteko hauteskundeetatik eserleku bat galdu du. Gobernatzeko egonkortasuna nahi badu, babesa zein alderditan bilatuko duen ikusteko dago orain. Aipatu moduan, PSE-PPren alternatibatzat aurkeztu du bere burua EAJk kanpainan, baina sozialistekin ondo konpon-tzen direla erakutsi dute jeltzaleek. Bizkaiko PSEko hautagai José Antonio Pastorrek berak argi utzi zuen, hauteskunde gauan bertan, edozein alderdirekin ituna egiteko prest dagoela, Bildurekin izan ezik. Ezker abertzalea joko-zelaitik kentzea da sozialisten helburua, EAEko garapenarentzat oztopo baino ez direla argudiatuta. Iñigo Urkullu EAJko lehendakariak berriz, adierazi du “ardurarekin” jokatu-ko dutela emaitzak ikusi ostean. Kontuak kontu, Gipuzkoan bezala zein interesi erantzuten dion erabaki beharko du EAJk, Bildurekin edo PSERekin elkartzeko aukera baitu. Beste instituzioetan gobernatzeko egiten diren akordioek ere izango dute zeresanik batzuen eta besteen arteko hitzarmenetan.

Beste hordago bat Araban

Gainerako lurraldeetan bezain irekia dago dena Araban, eta konplexuak izango dira hartu beharreko erabakiak. Hemen hordagoa PPko buru Antonio Basagoitik jaurti zien sozialistei martxoan, eta zehazki, Patxi López lehendakariari berari: Arabako Aldundiak popularrena izan behar du ezinbestean. “Arabako Aldundia PPrena izango da, iruditzen zaidalako Lópezek lehendakari izaten jarraitu nahiko duela”, ohartarazi du. 2007ko hauteskundeetan, PPk lortu zuen boz kopuru handiena, baina EAJk izan du legegintzaldi honetako aginte, Aralar eta EARekin akordioetara iritsita, baina batez ere, PSEk ahaldu nagusiaren aukeraketan bere burua bozkatu zuelako, PPren hautagaiari babesa eman ordez. Gasteiz sozialisten esku geratzeari zegoen



Diputaziorako boz gehien jaso dituen EAJ izan da Bizkaian (goiko irudian, Jose Luis Bilbao hautagaia) eta PP Araban (behean, Javier de Andrés hautagai popularra).

jokoan EAJ eta PSERen arteko estrategian. Ondoren etorri zen, ordea, Eusko Jaurlaritza eskuratzeko sozialistek popularrengandik jasotako babesa, 2009an. Horren ordaina jaso nahi du orain Javier de Andrés popularrak, baina ez zaio erraza izango. Esan bezala, dena irekia dago hemen ere. EB, 2 eserleku-rekin, giltza izan daiteke, eta kanpainan ziurtatutakoaren arabera, ez omen du itunik egingo H1!, EAJ eta PPrekin. Berriz ere, jeltzaleek zeresana izango dute, Xabier Agirre EAJko hautagaiak jarraitu dezake ahal-dun nagusi izaten, baina horretarako bilera, akordio eta hitzarmen festan delibe-ratu beharko du ezker aber-tzalearekin ala sozialistekin egin nahi duen bat.

Gogoeta franko

Hain panorama korapila-tuan, gehiengo erlatiboetan oinarritutako akordio zeha-tzak izan daitezke joera nagusia. Azken finean, alderdietako buruen interesak, aginte trukeak, Nafarroako gobernu osaketek, proiektu estrategikoetan bat etortzeko zailtasunak... tarteko izango dira, eskutik norekin joan hautatzeko garaian. Bilduren etorrera indartsuarekin, lau zutabe nagusitan banatu da pastela, eta horiek erabakiko dute EAEko Batzar Nagusien etorkizuna: PPk sozialisten-gan bilatuko du akordioa, PSEk Bildu ez beste guztiak izango ei ditu kontuan, Bilduk abertzaleen arteko ituna nahi du, eta EAJk zehaztu beharko du azpiegitura eta fiskalitate gaietan kide duen PSERen alde egingo duen, ala Bilduk proposatutako abertzaleen arteko akordioari helduko dion.

Txikiak jada ez dira giltza izango, aurreko hauteskundeetan gertatu izan denaren kontra. Emaitza kaskarrak ikusita, hausnarketara-ko parada hartu beharko dute Aralarrek, EBk eta H1!-ek. Gogoeta egin beharko dute, baita ere, sozialistek, jasan duten boz galeraren ostean. Krisialdiaren aurrean hartutako neu-riek ere izango zuten eraginik. EAEko Lege-biltzarra osatzeko 2013an egingo diren hau-teskundeei begira, PSEk aztertu egin beharko du zergatik zigortu duten herritarrek, eta zer-gatik zigortu duen jendeak PSOE Espainiako Estatuan. ■

Udaletan ere, hordago handira

Bilduk udal hauteskundeetan sortutako olatuaren tamainaz jabetzeko nahikoa da Gipuzkoako mapa ia monokromoa ikustea. Bilduren gorakadaren ondorioz, EAJk herri askotan hegemonia galdu du, paradoxikoki honek ere bototan gora egin duen arren. PSOE krisiak zigortu du, Ezkerraldeko herri garrantzitsu batzuk galtzeraino. Nafarroan, PPk UPNri egindako koskada oso arina izan da. Eta herritar gehienek txikira paso egin dute partida honetan.

URKO APAOLAZA

GIPUZKOAKO EMAITZA IKUSGARRIAK dira udal hauteskunde hauetako ikurretako bat. Posta bidezko botoen zenbaketak eragin ditzakeen aldaketak gorabehera, Bilduk 43 gehiago oso lortu ditu Gipuzkoako udaletan (Arrasate, Hernani, Bergara, Azpeitia...) eta beste 13tan alkatetza lor lezake (Tolosa, Zarautz, Errenteria...), paktuen arabera. Koalizio berriak 441 zinegotzi eskuratu ditu Gipuzkoan, EAJren 187 zinegotzietatik oso goiti. Bizkaiko kostaldean ere Bildu nagusi da (Bermeo, Lekeitio, Gernika, Ondarroa...) eta herrialde horretan

zinegotzi kopuruari dagokionez jeltzaleen kopurura hurbiltzen da lehen aldiz (524 EAJk eta 407 Bilduk). Araban, Laudion eta Agurainen irabazi du, besteak beste. Nafarroan NaBai-ren aurretik jarri da Sakanan, Bortzirietan, Baztanen... Auztegi Konstituzionalak Bildu legeztatzea onartu zuenean, bistakoa zen Hego Euskal Herriko udaletako eserlekuen berregituratzea gertatuko zela, baina inork ez zuen pronostikatu boto kopuruz hain gorakada itzela izango zuenik, “3” zenbakira iristeraino –Euskal Herritarrok-en garaia gaingiduz–.



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

EAJk boto kopuruz gora egin du apur bat udal hauteskundeetan, baina zinegotzi ugari galdu du Bilduren gorakadaren eraginez. Aitzitik, Bizkaian udalerrri nagusienak mendean dituzte jeltzaleek, eta Iñaki Azkunak marka historikoa lortu du Bilbon.



PSEk udal botere kuota handia galduko du Sestao, Basauri eta Erreenteriako gobernuetatik kanpo geratuz gero.

Bilduren emaitzak ulertzeko faktoreen artean aurki liteke ilegalizazio epe luze baten ondoren egon den eztanda. Esaterako, Lazkaon (5.000 bizt.) 12 urteren ondoren ezker abertzaleko ordezkaritza bati bozkatu ahal izan diote herritarrek, eta EAJren hiru hamarkadako agintaldiarekin amaitu du Bilduk, gehiengo absolutuz gainera. Odoltsuagoa izan da Ondarroako (9.000 bizt.) kasua, 2007an ANVren boto baliogabeak gehiengo absolutu izan ziren eta azkenean EAJk gidatutako gestora baten esku geratu zen udala. Egoera horretan, ezker abertzaleak udalaren legitimitatea auzitan jarri du behin eta berriz. M-22an Bilduk botoen %60a bereganatu du Ondarroan, 13 zinegotzietatik 9, zalantza barik aurreko lau urteetan gertatutakoak izan du zerikusirik emaitza horiekin.

EAJren kasua paradoxikoa da. 2007arekin alderatuta, boto kopuruan gora egin du, baina udaletako alkatetzetan eta eserlekuetan behera, batez ere Bizkaian (634 zinegotzitik 524ra). “Bildu efektuaren” beste ondorio bat. Lehen zituenez gain irabaztea lortu duen udalerri bakarretakoak PSEren bizkar irabazi ditu: Sestao eta Basauri.

Krisiaren faktura PSE-EEri

Espainiako Estatuan gertatu den moduan, PSE-PSN gogor zigortu dute hautesleek, krisi ekonomikoa dela-eta. Nafarroan PSNk ez du udal ordezkaritza hainbeste jaitsi, aldiz Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian nabarmena izan da beherakada—soilik 6 udaletan dira gehiengo—. PSE-EEren kolorea ez da sekula nabarmendu udalen mapan, baina irabazi ohi duen udalerrietan biztanleriak pisu handia du. 2007an, 25.000 biztanletik gorako 11 udalerritatik 7tan irabazi zuten sozialistek, eta EAEko udaletako aurrekontu likidazio osoaren %21 kudeatu

Batzar Nagusietako hemizikloetan gertatu den polarizazioa udaletan ere islatu da.

ahal izan zuten udalerri horiekin. 2011n PSE-EEk Erreteria, Sestao eta Basauri galdu ditu—paktuek eragozten ez badute— eta udal boterea nabarmen gutxitu du.

Krisiak gogor kolpatu ditu Ezkerraldeko udalerriak—gehienetan %17tik gorako langabezia tasa dute— eta horrek izan du eraginik sozialisten emaitzetan. Esaterako, herritarren %21a lanik gabe dagoen Sestao (29.000 bizt.), PSE-EEk bi zinegotzi eta 1.300 boto galdu ditu. Dena den, harrigarria da Portugaleteren (48.000 bizt.) kasua, bertan EAJk 1.600 boto egin du behera eta PSE-EEk eutsi egin dio bere hauteslegoari; jeltzaleek aztertu behar lukete zer gertatu zaien Patxi Lópezen jaioterrian.

Txikira pasoa

Batzar Nagusietako hemizikloetan gertatu den polarizazioa udaletan ere islatu da, eta ondorioz zenbait alderdik ordezkaritza galdu du udal askotan. Aralarrek eta Ezker Batuak okerrera nabaritu dute bakarka aurkeztu izana. 2007an 145 zinegotzi lortu zituzten koalizioan eta 2011n Aralarrek 38 eta EBk 13. Gainera, bi alderdiok ordezkaritzarik gabe geratu dira Araban. Aralar Elgetan nagusitu da boto bakar batengatik eta Zallan (8.000 bizt.) sorpresa eman du gehiengo osoa lortuta. Nafarroako EBren eta Batzarrerren Ezkerra koalizioak, aldiz, zertxobait arindu du bi alderdion beherakada, eta Tuteran lortutako 4 eserlekuak erakusten dute Erriberan segitzen dutela boto fidelak izaten.

Banaketetatik sortutako alderdi zenbaiten patua ere gaitza izan da. PPk apenas egin dion igurtzirik UPNri Nafarroan—48 zinegotzi 322ren aldean— eta gauza bera esan liteke Gipuzkoan EAren banaketa den Hamaikabat-ekin. Galdosen alderdiak lehendik zituen alkatetza guztiak galdu ditu eta zientio erdi zinegotzitik 12 zinegotzi edukitzera pasa da.

Atez ateko zabor bilketari erreferenduma

Hamaikabat-ek lortu dituen 12 zinegotzietatik ia erdia atez ateko zabor bilketa ezarri den herrietan bereganatu ditu. Udalerri horietan atez atekoaren kasik erreferendum gisara aurkeztu dituzte zenbait alderdik hauteskunde hauek. Dena den, adierazgarria da Hernanin, Usurbilen, Oiartzunen eta baita Antzuolan ere atez atekoaren aldekoak atera direla garai-le, kasu batzuetan gorakada nabarmenarekin. Hain zuzen, Gipuzkoan Bilduk izan dituen emaitza bikainek kolokan jar dezakete Zubietako erraustegia, udalerri gehiagotan atez ateko sistema jartzeko planek aurrera jarraituko luketeelako, eta mankomunitateetan eta hondakinen partzuergoan indar korrelazioak irauli daitezkeelako. ■





Lasaitasuna Bilbon eta balizko aldaketak Donostian, Iruñean eta Gasteizen

Donostian udal hauteskundeek egoera benetan konplexua utzi dute. Alderdi-Ederreko egoitzan nagusi zein izango den jakitea ez da erraza. Bilduk emaitza historikoa lortu du, Odon Elorzaren 20 urteko nagusitasunarekin amaitu dute koalizioak jasotako 21.000 bozkek. Odon Elorzak berak esan du “deabruzko” emaitzak direla: Bilduk 8 zinegotzi, PSE-EEK 7, PPK 6 eta EAJk 6. Alkate izateko 14 zinegotziren babesa beharko dute hautagaiek. Juan Carlos Izagirre Bilduko alkategaiaren esanetan denekin hitz egiteko prest dago koalizio irabazlea. Bestetik, Elorzak berak kanpainan esan zuen lehen indarra ez bazen, ez zela alkate izango... Dena den, Elorzak askotan erakutsi izan du akordioetara iristeko gerria eta abilezia. Besterik da EAJren eta PPren babesa lortzea, edo lortu nahi izatea.

Gasteizen, lau urteko agintaldi sozialistaren ondoren, zantzu guztiek adierazten dute popularrak beriz itzuliko direla Udalera. Eusko Jaurlaritzako PP-PSE ituna errepikatzea nahikoa litzateke horretarako. PPK askotan erakutsi izan du Arabako botereguneak berreskuratzeko grina, Lakuari emandako babesa horren baitan jartzeraino. Ikusi beharko da baina, EAJk zein rol jokatzten duen horretan guztian, bai Batzar Nagusien eraketan –indar abertzaleak eta EB nagusi lirakeke, nahi izanez gero– eta baita Gasteizko Udalean PSEekin edo PPrekin lor ditzakeen akordioetan ere.

Askoz garbiago dago Bilboko gobernu eraketaren lehioa. EAJko hautagai Iñaki Azkunak sekulako erakustaldia eman du eta euskal hiriburu populatuenean izandako emaitzarik onenak lortu dituzte jeltzaleek, gehiengo osoz gainera: 15 zinegotzi izango ditu EAJk Bilbon, eta 75.000 bozka. Bistan da Azkunaren irudiak eta izaerak pisu handia izan duela bilbotar askok EAJko zerrendari bozkatzeko orduan. Datu esanguratsu bat: Bilboko zirkunskripzioan EAJk 11.000 bozka gutxiago jaso ditu Batzar Nagusietarako Udalera baino. Bestalde, aipagarria da PSE-EEren galera, Bilduren azpitik geratu baita, baina baita PPK 7.000 boto gutxiago jaso izana ere, Iñaki Azkunak arrantza zein lekutan egin duen erakusten dute datu horiek.

Iruñeko kasuan, PSNren borondatearen arabera egongo da, beste behin ere, balizko gobernu aldaketa. PPK ez dio uste bezain beste kendu UPNri, soilik bi zinegotzi. Bestalde, bozka kopuruari dagokionez, bloke *navarrista*-k (UPN-PSN-PP) dozena bat mila boto galdu ditu eta indar euskaltzaleek (NaBai, Bildu, Ezkerra) zinegotzi bat gehiago dute. NaBai-k eutsi egin dio Bilduren oldeari Uxue Barkosen tiradizoari esker.





M²²

Bildu eta hasi

Ramon Etxezarreta


PSE-EEKO KIDEA

Hautesleriak ETA lokartuta eta ETarik gabeko etorkizunaren esperantza saritu duela esango nuke udal eta foru hauteskunde hauetan. Sari horren adierazpiderik nabarmenena Bildu indarraren agerpen ikusgarri hori iruditzen zait. Erkidego Autonomoko emaitzen irakurketa kanoniko batek EAJren garaipena, PSE-EEren galera latza, PPren mantentzea, Bilduren irabazi ikusgarriak eta ezker eremuan iraun nahi duten alderdi txikien desagerpen ia osoa bistaritzen ditu.

Guztiz berria da egoera, eta oraingoz, harrigarria bezain esperantzagarria. Gipuzkoa da, Donostia barne, pitxirik bitxiena. EAJ izango litzateke jipoirik handiena hartu duena lurraldean, Hondarribia du alkatetzadun herririk handiena, eta alkatetza gutxi

lortu ditu. Bildu izan da nagusi udal mailan bezala lurralde mailan. Emaiza hauek dira ondorio politikorik eraginkorrenak ekarriko dituztenak eta “aldaketa” politikoa gauzatuko dutenak.

Irabazleak irabazle, zail egiten zait aginpide banaketa menturatzeari. Oinarrizko jotzen diren, edo jo izan diren, proiektu bat baino gehiago dago jokoan eta ikusi egin behar proiektu horien araberrako koalizioak edo beste interes kidetasun batzuek eragindakoak bilakatuko diren ardura instituzionaletako nagusi. Edozein kasutan garbi dago alderdien arteko harreman sare berri bat eraikiko dela, elkarbizitza berri bat, guztiak daudela negoziatzera behartuta eta harreman eta negoziazio horietan ez arma eta ez armaturik ez dela izango inoren bizkar edo bularretan. Hasiera da.



M²²

Hedabideen indarrak

Txema Ramirez de la Piscina

EHUKO IRAKASLEA

Emaitez agerian utzi dute iritzi publiko eta publikatuaren arteko haustura. Ezker abertzale historikoa hedabide publiko zein pribatuetatik inoiz baino baztertuago egon den unean, inoiz baino deabruago izan den garaian, lortu ditu historiako emaitzarik onenak. Non gelditzen da masa-hedabideen indarra? Bilduk aurreikuspen guztiak gainditu ditu. Bigarren indar politikoa da Hego Euskal Herria. Beste horrenbeste esan liteke PP-PSE itunaz. Hedabide autonomikoetan Patxi Lopez inoiz baino presentago egon den garaian lortu ditu PSE-k emaitzarik kaskarrenak. Iritzi publikoaren osaketan hainbat faktorek hartzen dute parte. Hedabideek garrantzi handia dute, baina ez dira guzti-ahaldunak, ezta monolitikoak ere.

“Bildu-namia”

Bilduk izugarritzko magnetismoa sortu du. Hedabideek kanpaina itzela egin diote. Boomerang efektua gertatu da. Ez da lehenengo aldia. Antzeko zerbait gertatu zen Katalunian 2004an ERCrekin. Josep Lluís Carod Rovira ETaren ordezkariarekin bildu eta gero, Aznarren PPk izugarritzko kanpaina mediatikoa egin

zuen haren kontra. Emaiza: alderdi errepublikazaleak inoizko boto-kopururik handiena jaso zuen. Bilduk hainbat tokitatik jaso ditu botoak; ez soilik Aralarretik edo EBtik, baita EAJtik ere. Hemendik bi urte barru egongo diren hauteskunde autonomikoetan ezker

abertzale berria lehen indar politikoa izan daiteke, EAJri berari aurrea hartuta. Horretarako Sortuk alderdi legala izan beharko luke eta Aralarrek bat egin koalizioarekin. Ordurako, Arnaldo Otegi lehendakariari bezala aurkezteko aukera izango balu, zein hautagai jeltzalek egingo lioke aurre?

Amaitzeko PP-PSE itunaz bi hitz. PSOEn gainbeherak toki txarrean utzi du pakto hori EAEn. Popularrak Gasteizko alkatetza lortu arren, zaila dirudi Javier de Andres ahaldua nagusia izatea Araban, EAJren, Bilduren eta EBren baturak gehiengo ematen baitie.

Nafarroan zer? Gauza gehiegi ez dira aldatu. Eskuina nagusi baina gehiengorik gabe. Bilduk ez dio aurrea hartu NaBai-ri. Aralarrek EAEn Bilduren garaipena onartu behar duen bezala, Bilduk ere onartu beharko luke Nafarroa eta EAEn arteko harremanak definitzerakoan Aralarren bidea egokiagoa eta errealistagoa dela; eta epe ertainera begira eraginkorragoa, beti ere ETaren itzala behin betiko itzaltzen bada. Gogoratu, bestela, Loiolako negoziaketak zergatik hautsi ziren.

Bi hitzetan: panorama konplikatu gobernatzeko, baina oso interesgarria.



JUDITH FERNANDEZ

M²²

Errore historiko nazionala


Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO IRAKASLEA

Ezker abertzalea deritzan espazioan kokatzen garen guztiok, esan beharrik ez dago, poztasunez hartu ditugu Bilduren emaitzak. Espainiar demokraziari oraindik ere ibilbide luzea falta zaion arren, berriro ere instituzioetan izango dugu, luzaroan isilarazia izan den euskal jendarte zabala ordezkatzeko duen adierazpide politikoa. Ez hori bakarrik, espazioa zabaldu egin da, EA eta Alternatiba gehitu ostean. Txalotzekoa, zailtasunak gainditzeko lortu duen ariketa politikoa.

Dena ez da baina, positiboa izan. Pello Urizarrek Arrasaten egindako ekitaldi politikoan zioen "... ezberdinen arteko konpromisoak kezka sortu duela...". Nik erantzungo nioke, berdinen artean konpromisorik hartzeko gai ez izateak eragin didala kezka. Ezberdinak bildu eta berdinak bereizi jarraitzen dute. Askok izan gara hauteskundu

de hauetan ezker abertzalearen bilketa osoa gertatu ez delako haserre eta goibel izan garenak ere. Errore historiko nazionala deritzot, ezker abertzaleak (zentzu zabalean hartuta), hori baino heldutasun eta erantzukizun politiko gehiagoz ez jokatu izana. Askok gara Aralar Bildun ez egotea ulertu eta onartu ez dugunak, hor bertan zegoelako ezker abertzalearen ardura politikoaren erronka zailenetakoa; pasatakoak pasata, heldutasun politikoz jokatzeko, horra hori langa. Bilduk ilusioa eta esperantza ekarri duen arren, ezin ezkutatu, bai Aralarrek eta baita Bilduk ere azaldu duten ezgaitasuna, (NaBai eta AB kanpoan daude) izaera nazionalako proiektu bakarra aurkezteko, ezker abertzalean kokatzen garen independentistoi. Helburu, ezin dira alderdiak izan; helburua, beti da proiektu politikoa: herri hau ezkerretik independentziara eramango duen proiektu politikoa.



JOSU SANTESTEBAN

M²²

Bildu ala zabaldu

Bixente Serrano Izko

IDAZLEA

Estatu eremuan, alderdibitasunaren miseriak: ezkerretik itxurazko alternatiba aurrerakoiari zigortu behar zaionean, atzerakoiaren eskuetan utzi behar, nahitaez, aginte makila, hau da, gizarte justuago baten esperantzak are gehiago zapuztuko dituenari.

Nafarroan, argi azaldu zuen Miguel Sanzek bere lasaitasunaren funtsa: UPNren aurreko alternatiba bakarria abertzaletasunetik pasatzen da, hau da, PSNk inoiz onartuko ez duen aliantza batetik. Gauzak horrela, nafar indar euskaltzale eta abertzaleen eginkizuna UPNren aroa eteteko, nafar gizartearen geruza aurrerakoiak erakartzean, etxetik mugiaraztean, datza. Geruza aurrerakoiak: hotz, abertzale ez izanik ere, euskaltzale sendoak ez izanik ere, UPNren aroaz nazkaturik daudenak. Hor dauden geruzak dira,

baina zailak mugiarazteko aukera seriorik ez ikusi artean.

Nafar abertzaletasunak bere betiko *to-be-or-not-to-be* darrai: abertzale peto guztiak bildu, ala bertze geruzetara zabaldu. Biltzeko beharra izan du korronte batek, birfundatzeko beharra; zabaltzeko aukerak murriztu zaizkio bertze korronteari, bai bere ibilbidean adieraziriko barne sendotasun faltagatik, bai abertzaleen arteko lehiakortasunagatik.

Iluntasun gutxiko argazkia dugu M-22koa: nafar abertzaleak, den-denak bilduko balira ere, ez dira gauza beraiek bakarrik UPNren eta antieuskaltasunaren aroari akabera emateko, baina abertzaletasunetik bakarrik ireki daiteke bide esperantzatsurik. Gakoa: denok biltzeko obsesiotik zabaltzeko asmora pasatu beharko da behingoz.